



Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

Pobrezia: Nazio Batuek ahaztuta duten hondamendia

1.



© ONU / Mark Garten



© Javier Martín Cantera / Intermón Oxfam

1. Bost hitzez deskribatu bi argazki hauetako bakoitza.

2. Zure ustez, zer lotura dago bi argazki hauen artean?

2. Helburua: Pobrezia deuseztatzea



Zer dira Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH)?

2000. urtean, Milurtekoko Deklarazioa onetsi zuen Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrak. Herrialde aberatsek zein txiroek pobrezia deuseztatzeko, giza duintasuna eta berdintasuna sustatzeko eta bakea, demokrazia eta ingurumenaren iraunkortasuna erdiesteko ahal duten guztia egiteko konpromisoa hartu zuten batzar hartan. Horretarako, zortzi helburu zehatz erdietsi behar dira 2015 baino lehen.

Honela hasten da Milurtekoko Deklarazioa:

"Gu, hainbat estatu eta gobernutako buruok, New Yorken bildu gara, Nazio Batuen egoitzan, 2000ko irailaren 6a eta 8a bitartean, milurteko berri baten hastapenetan, (Nazio Batuen) Erakundearen eta haren Gutunean dugun fedea berresteko, mundu baketsuago, oparoago eta bidezkoago bat erdiesteko bidean ezinbesteko oinarri".

Eta honela dio aurrerago:

"Behar adina ahalegin egingo dugu gure hurkoak, gizon, emakume zein haur, muturreko pobrezia berekin dakartzan kondizio latz eta alienagarrietatik askatzeko, areago gaur egun 1.000 milioi pertsona baino gehiago horrela bizi direlarik..."

Milurtekoko Garapen Helburuak honako hau bilatzen dute:

1. Erabateko pobrezia eta gosea erdira jaitzaraztea.
2. Guztientzako lehen hezkuntza erdiestea.
3. Sexuen arteko berdintasuna sustatzea.
4. Bost urtetik beherako haurren hilkortasuna bi heren gutxitzea.
5. Amen heriotza-tasa hiru laurden gutxitzea.
6. Hiesaren, paludismoaren eta tuberkulosiaren hedapena geldiaraztea.
7. Ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea
8. Garapenerako munduko elkartearen bultzatzea, laguntzeko, salerosketarako eta zorraren karga arintzeko.



Erreparatu MGHei edozein pertsonaren oinarriko beharrekin zerikusia dutela, giza eskubideekin, beraz: bizitza duina, elikadura, hezkuntza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, umeen eta haien amen osasuna, ingurumen osasungarri eta etorkizunekoan bizitzeko eskubideak dira tartean, bai eta helburu horiek erdiesteko herrialde aberatsen eta txiroen arteko konpromiso baten premia ere.

2000. urtetik hona zertxobait aurreratu da MGHetan, baina atzerapauso handiak ere izan dira; hori dela eta, aparteko ahaleginak egin beharko dira helburu horiek 2015erako beteko badira.

3. Bana ezazue gela hiruzpalau laguneko zazpi taldetan, lehen 7 MGHei balioesteko. Irakur ezazue taldean helburu bakoitzaren txostenaren laburpena (baliabidea: aurrerakada eta atzerapausoen dokumentua) eta azaldu besteei zuen ondorioak: Zuen helburuan zer egin da, aurrera ala atzera? Hamar urte barru beterik izan litekeela uste duzue?

3. NBEk New Yorken egindako Gailurra, 2005eko irailean: azterketa

Irailaren 13tik 16ra, mundu osoko 191 estatuburu eta gobernuburu elkartu ziren New Yorken, eginkizun garrantzitsu honekin: Milurtekoko Garapen Helburuak betetze-maila aztertzea. Gailurra honek bi helburu zituen: Milurtekoko Deklarazioan hartutako konpromisoen betetze-maila ebaluatzea eta etorkizuneko ekintzak definitzea.



Aurreko ariketan ez dugu zortzigarren helburua balioetsi, herrialde txiroen garapenerako mundu mailako hitzarmenaren premia aipatzen duena, hain zuzen. Orain beste balioespen hau egiteko alboratu dugu lehen: munduko hainbat herrialdeetako gobernariak eta pobreziaren aurkako borrokarekiko konpromisoa.

4. Irakur itzazu berri eta izenburu hauek eta erabaki gobernarien jarduna onesten ala gaitzesten duzun; gero, bost lerrotan, adierazi zergatik.

Gutxieneko helburuen dokumentua

Nahiz eta NBEren erreformarako negoziaketaren abiapuntua Kofi Annanek berak aurkeztutako proiektu bat izan –erakundea sakon aldatzeaz gain bestelako konpromisoak ere planteatzen zituena–, gai horietatik asko atzeratu egin dira eta gutxi batzuek baino ez dute aurrera egin. Garapenerako laguntzei dagokienez, azkenean hitzartutako dokumentuan uko egin zaio propio BPGren % 0,7a erdiesteko egutegi bat ezartzeari, AEBak aurka baitzeuden.

(EL PUNT, 2005eko irailaren 15a, osteguna)

Emaitza motz eta desadostasun ugariz amaitu da NBE-ren gailurra

Oso emaitza motzeko azken dokumentu batez amaitu da New Yorken NBEren 50. urteurrenaren gailurra. Adostasunik ezak hainbat kontu alboratu beharra ekarri du, hala nola Segurtasun Kontseiluaren eta Giza Eskubideen Kontseiluaren erreforma. Kubak eta Venezuelak dokumentua onesteko jarraitutako metodoa kritikatu dute; goraka ari diren herrialdeek (Indiak, Brasilek, Hegoafrikak), berriz, pobreziaren aurkako borrokan izandako lorpen kaskarrak. Dokumentua, 40 orrialde eskasekoa, Kofi Annan NBEren idazkari nagusiaren aurrean onetsi da, esku hartu duten 191 herrialdeetako ordezkariak hiru egunetan bilera etengabeak egin eta gero. Sekulan egin den gailurrik handiena izan da. Hala eta guztiz ere, ikuspegi kontrajarriek dokumentu zabalago eta asmo handiagoko bat lortzea galarazi dute (...) Dena dela, NBEko kide diren Estatu guztien arteko akordioari ezinezkoa irizita, “konpromiso posibleetan onena” dela jo dute herrialde gehienek.

(EL PAÍS, 2005eko irailaren 17an, larunbata)

Helburu nagusiak betetzeke itxi du NBEk bere gailurra

EL MUNDO, 2005eko irailaren 16a, ostirala

NBEren erreforma kaskarra onetsi zuten munduko buruek gailurraren amaieran

EL MUNDO, 2005eko irailaren 17a, larunbata

NBEren gailur batean emaitzak lortzeko aukera alferrik galdu dute munduko buruek


ABC, 2005eko irailaren 16a, ostirala

Pobreziaren aurka borrokatzeko ezintasuna berretsi du NBEk

EL DIARIO DE SEVILLA, 2005eko irailaren 17a, larunbata

Inor ase gabe amaitu da NBEren gailurra

EL PERIÓDICO, 2005eko irailaren 17a, larunbata



© Albert Monteyes



© Plantu

Munduko herrialderik aberats eta boteretsuenen bilera da G-8. Alegia: AEB, Kanada, Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Italia, Japonia eta Errusia.

4. Eta jendeak, zer dio?

“Nazka eginda dago mundua, bere nagusiek adarra jotzen diote eta. Emandako hitza betearaztea premiazko zeregina da. Hitzak eta ekintzak banatzen dituen aldeak ematen du, izan ere, itxaropenaren eta etsipenaren artean hautatzea oraindik ere posiblea dela sinesten dugunok planteaturik dugun erronkaren neurria”

EDUARDO GALEANO

Jende asko mobilizatu da, eta horretan dirau oraindik, presioa egiteko beren gobernuek MGHehiko konpromisoari hel diezaioten. GKEek eta herritarrek akordio zehatzak exijitzen dituzte, besteak beste hauek lortzeko:

- **Laguntza gehiago eta hobea:** % 0,7a; interes komertzialik gabeko laguntza, herrialde eta kolektibo pobretuenei bideratua.
- Herrialde pobrenei **zorra ezeztatzea** eta diru hori MGHetan inbertitzea.
- Herrialde pobretuenak zigortzen dituzten eta ingurumena hondatzen duten **salerosketa-arauetan aldaketa garrantzitsuak** egitea.
- Iparraldeko nekazaritza-ekoizpenei **diru-laguntzak kentzea**.
- **Oinarrizko zerbitzuak babestea** oinarrizko eskubideak bermatzeko: elikadura, osasuna, edateko ura, etab.
- Iparraldeko eta Hegoaldeko gobernuek **nazioarteko konpromisoak betetzea**.



6. Banatu gela lau taldetan eta eztabaidatu 15 minutuz, taldean, puntu hauek.

- Baieztapen hauekin ados zaudete?
- Zergatik?

Gero, eledun batek adieraziko dizkio gela osoari talde bakoitzaren ondorioak. Azaldu zazpi esaldi hauekin ados zaudeten ala ez, eta zergatik:

1. Herrialde pobreenek, ondo gobernatutakoak barne, ez dute behar adinako baliabiderik beren garapena finantzatzeko; aberatsek lagundu behar diete.
2. Gaur egungo sistemak pobrezia berean iraunaraziko du, laguntzak ematea besterik ez baitu egiten; ez du aldaketarik bultzatzen. Pobreei bizirik irauten laguntzen zaie; hartara, pobrezia ere bai.
3. Nahiz eta herrialde aberatsek lagundu eta herrialde pobreei laguntza eman, ez da ezer aurreratuko, haietako gobernariak ustelak baitira eta herritarrek ez bailukete laguntzari etekinik ateratzen jakingo.
4. Herrialde aberatsek hegoaldeko produktuei ezartzen dizkieten oztopoak kenduko balituzte, merkataritzak aberastasuna sortzen eta pobrezia murrizten lagunduko luke.
5. Herrialde aberatsek eta haietako gobernariak pobreei pobreziatik ateratzen laguntzeko behar morala dute. Haien aberastasunaren zatitxo batez ken daiteke gosea mundutik.
6. Pobreak pobre izatearen arrazoia ez da haien alferkeria, ez eta haien gobernariak ustelak izatea ere. Pobre dira bestek kendu dietelako beren aberastasuna eta, harekin batera, hura sortzeko gaitasuna ere.
7. Planetako baliabideen % 80 populazioaren % 20ren esku dago. Munduko biztanleen hiru laurdenak pobre izateak bideraezin bihurtzen du planetaren etorkizuna.

5. Eta guk, zer egin genezake?

Mugi zaitez

Ezagutu eta lagundu mundu osoko politikariei presioa egiteko abian diren kanpainei, pobrezia aurkako konpromisoa har dezaten.

Haien webguneak bisita ditzakezu, eta zurean egitekoak diren ekitaldien berri jaso, zein Internet bidez parte hartu:

- **“Zero Pobrezia Kanpaina”** Espainiako GGKEen koordinakundearen webgunea (gaztelaniaz): www.pobrezacero.org
- **“Campaña Sin Excusas 2015”** NBEaren Milurtekoko Kanpainaren webgunea (gaztelaniaz): www.sinexcusas2015.org

Jarraitu MGHen inguruan ikasten NBEren webgunean (gaztelaniaz):
www.un.org/spanish/millenniumgoals/

Idatz iezaiozu NBEren idazkari nagusi Kofi Annan jaunari, eta adierazi zure iritzia. Eskolako Ziberbusa izeneko NBEren eskola-programaren bidez egin dezakezu:
<http://www.un.org/Pubs/CyberSchoolBus/spanish/>

Pentsatu eta jokatu

Pentsatu eta jokatu egunero eskolan, senitartean, lagunartean...; ez egin ez ikusiarena zure inguruko zein mundu osoko pobrezia ikustean. Hausnartu pobrezia zergatiaz.